

2026-2027 ikasturteko irakaskuntza-eskaintza baimentzeko irizpideak eta prozedurak

(2026-01-15)

Dokumentu honen helburua da **2026-2027 ikasturteko irakaskuntza-eskaintza baimentzeko irizpideak** biltzea, eskaintza osatzeko ikastegiei eta sailei oinarri sendoa izan dezaten. Irizpide horiek une honetan indarrean dauden dokumentu hauetan oinarrituta daude:

- a) [Erabakia, 2011ko abenduaren 22koa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren, ECTS europar kredituen barruko irakaskuntza motei eta taldeen tamainari buruzko arautegia eguneratzeko dena.](#)
- b) [Criterios a utilizar para la autorización de la oferta docente del curso 2012-13 y posteriores.](#)
- c) [Hautazkoen eskaintzari buruzko arautegia nola aplikatu masterretan](#)
- d) [Ebazpena, Euskara Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak sustatutako deialdia egiten duena, hizkuntza ez-ofizialetan irakaskuntza baimentzeko eta 2025-2026 ikasturterako irakasgaien nazioarteko ibilbideak sortzeko](#)
- e) [Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen IV. Plan Gidaria \(2023-2027\)](#)
- f) [Irakaskuntza-eskaintza instrukzio-hizkuntzen arabera. 2025-26 ikasturteko eskaintza IV. Euskararen Plan Gidarian jasotako 23-34 ikasturteko eskaintzarekin alderatuta](#)
- g) [Masterreko irakaskuntza eskaintza instrukzio-hizkuntzen arabera \(2025-26 ikasturtea\)](#)
- h) [Irakaskuntza-eskaintza osatzeko eta baimentzeko hizkuntza-irizpideak](#)

Irakaskuntza-eskaintza grabatzeko prozeduraren urratsak eta jarraibideak

1. Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetzako Irakats Plangintza Zuzendaritzak, 2025-2026 ikasturteko matrikula kontuan hartuta, automatikoki baimenduko ditu nahitaezko irakasgaiak eta matrikulatutako gutxieneko ikasle kopurua (10 ikasle) izan duten graduatuko eta masterretako hautazko irakasgaiak, baita irakaskuntza-modalitateen araberrako ikasle kopuruak betetzen dituzten taldeak ere.
2. Irakats Plangintza Zuzendaritzak informazioa bidaliko die ikastegiei, irakaskuntza-eskaintza grabatzeko egutegiarekin batera.
3. Ikastegiei baimendutako irakasgaiak eta taldeak aldatzeko proposamenak bidaliko dizkiote Irakats Plangintzako Zuzendaritzari, inplikaturako sailekin adostu ondoren.
 - Irakasgaiak eta taldeak kentzeko edo gaineratzeko proposamenak egin ahal izango dira.
 - Proposamenak egiteko, kontuan hartu beharko dira, taldeen dimentsionamendurako eta irakasgaiak baimentzeko irizpideak, hala graduiko ikasketenak nola graduondoko ikasketenak.
 - Ikasle kopuruak estimatzeko, kontuan hartuko da 2025-26 ikasturteko matrikula.
 - Kontuan hartu beharko da baita irakasgaiak atxikita dituzten sailen irakats-ahalmena ere.
 - Proposamenak egiteko, kontuan hartu beharko dira irakaskuntza-eskaintza osatzeko hizkuntza-irizpideak.
 - Ikastegiei, sailekin adostu ondoren, irakasgaiak eta taldeak aldatzeko proposamenak Irakats Plangintza Zuzendaritzak prestatutako *Excel* fitxategiaren bidez bidaliko dituzte (ez da onartuko bestelako formatuetan bidalitako proposamenik).
4. Irakats Plangintza Zuzendaritzak ikastegien proposamenak aztertu, eta erantzuna bidaliko die ikastegiei.
5. Ikastegiei taldeak sortu eta ordutegiak grabatuko dituzte.
6. Sailei irakaslanak grabatuko diete saileko irakasleei.
7. Ikastegietako edo Fakultetetako Batzarrek irakaskuntza-eskaintzaren proposamena onartuko dute.